

11. AKTA

2001eko irailaren 13an izandako GOBERNU BATZORDEA.

Pasaiako udaletxean, bi mila eta bateko irailaren hamahiruan, Juan Carlos Alduntzin Juanena alka-tea eta Joseba Belaustegi Cuesta idazkariarekin batera, ondoko zinegotzi hauek bertaratu dira Go-bernu Batzordearen bilera egiteko:

Xabier Portugal Arteaga j.
Obdu Lorenzo de Dios and.
Angel Ouviaña Vidal j.
Ricardo del Pozo gil de Albornoz

Lehendakariak, Gobernu Batzordea osatzeko adina kide agertu dela ikusirik, batzarraldiari hasiera eman dio 18:00etan, eta gaizerrendan jasotako ondoko gaiak aztertu dituzte:

1.- Aurreko akta irakurri eta onartu: 10. akta, 01-8-8ko batzarraldiari dagokiona

Idazpuruan aipatzen den akta irakurri ondoren, ondoko zuzenketa egin da:

- Aktaren 5. puntuan:

“Hori guztia indarreango udal aurrekontuaren A-893/01 baimendunaren kargura” dion tokian ondokoa behar du:

“Hori guztia horretarako sortutako 1-05-00-481-422-00-02-Lizeo Hitzarmena partidaren aurka”

Zuzenketa egin ondoren, Gobernu Batzordeak aho batez akta onartu eta dagokion akta-liburuan jasotzeko erabakia hartu du.

2.- Kontu eta faktura zerrenda: 9/01

Gobernu Batzordeak erabaki du 9/01 kontu eta faktura zerrenda onartzea; kopurua ondokoa da: HOGEITA HAMAIRU MILIOI, BOSTEHUN ETA BERROGEITA HAMALAU MILA, SEIEHUN ETA BERROGEITA HAMABI PEZETA (33.554.652 pta.) / 201.667,52 euro.

3.- Antxo Iparra 01 C Gunea-Azoka Hiri Eremua berriro hiritartzeko obraren 4. ziurtagiria

Gobernu Batzordeak, udal aparejadoreak aldeko txostena egin duela kontuan hartuta, aho batez ONARTU DU Antxo Iparra 01 C Gunea-Azoka Hiri Eremua berriro hiritartzeko obraren 4. ziurtagiria. Agiri hau Igor Urrutia obra-zuzendariak eta udal aparejadoreak egin dute, CONSTRUCCIONES DONOSTI enpresaren alde; zenbatekoa ondoko hau da: HIRU MILIOI, LAUREHUN ETA HOGEITA LAU MILA, BERREHUN ETA HIRUROGEITA BI PEZETA (3.424.262 pta.).

Hori guztia D-1659/00 kontusailetik ordainduko da.

4.- Donibane-Lezo Bidera sartzeko Eremua berriro hiritartzeko obraren 1. ziurtagiria

Gobernu Batzordeak, udal aparejadoreak aldeko txostena egin duela kontuan hartuta, aho batez ONARTU DU Donibane-Lezo Bidera sartzeko Eremua berriro hiritartzeko obraren 1. ziurtagiria. Agiri hau Igor Urrutia eta Juan Carlos Lapazaran obra-zuzendariak eta udal aparejadoreak egin dute, CONSTRUCCIONES OTEGI GAZTAÑAGA enpresaren alde; zenbatekoa ondoko hau da: HAMABI MILIOI, BOSTEHUN ETA BERROGEITA BEDERATZI MILA, LAUREHUN ETA BERROGEITA HAMAIRU PEZETA (12.549.453 pta.).

Hori guztia D-455/01 kontusailetik ordainduko da.

5.- Arrokaundieta Aterpetxeko Jolasgela Osagarria egokitzeko obraren 1. ziurtagiria

Gobernu Batzordeak, udal aparejadoreak aldeko txostena egin duela kontuan hartuta, aho batez ONARTU DU Arrokaundieta Aterpetxeko Jolasgela Osagarria egokitzeko obraren 1. ziurtagiria. Agiri hau Carlos Callejo Gonzalez obra-zuzendariak egin du OTAKA,SL enpresaren alde; zenbatekoa ondoko hau da: ZORTZI MILIOI, BERREHUN ETA HOGEITA BOST MILA, SEIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMAR PEZETA (8.225.670 pta.).

Hori guztia D-633/01 kontusailetik ordainduko da.

6.- Gizarte Larrialdietarako Laguntza Ekonomikoak aldatu

Gizarte Ekintza Sailak, 2001eko abuztuaren 12an eta irailaren 5ean Gizarte Larrialdietarako Laguntza Ekonomikoetan egin beharreko aldaketen proposamenak aurkeztu zituzten, hurrenez hurren 3/01 eta 2/01 proposamenei dagozkionak. Horiek aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- 2001eko uztailaren 6an eta maiatzaren 21ean Gobernu Batzordeak onartutako 3/01 eta 2/01 proposamenei dagozkien Laguntzak aldatu, espedienteetan ageri diren onuradunen egoera aldatu egin baita, beraz, espedienteetan adierazten diren kopuruak deuseztatu egingo dira.

BIGARRENA.- Zenbateko horiek Gizarte Larrialdietarako partidara itzuli.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau Zerga-bilketa Sailari jakinarazi.

7.- Albaola Elkartearentzako dirulaguntza

Gai hau aztertzeke geratu da, elkarte honentzako dirulaguntza udaleko Kultura Sailarekin negoziatu baitzen.

8.- Oroitza Baserrira sartzeko bidea konpontzeko dirulaguntza

2001eko otsailaren 23an JOSE AGUSTIN ZULOAGA jaunak dirulaguntza eskatu zuen Oroitza Baserrira doan bidea konpontzeko; obra hauek Auzolanean egingo direnez, obretan erabiliko diren materialak ordaintzeko eskaera egin zuen.

Erabilitako materialen fakturen kopia aurkeztu dituzte eta hauen arabera 369.329 pta.ko gastua izan dute.

2001eko abuztuaren 7an hirigintza teknikariak aurkeztutako ebazpen proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak aho batez ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- JOSE AGUSTIN ZULOAGA AZKUE jaunari 369.329 pta.ko dirulaguntza eman, Oroitza Baserrira doan bidea konpontzeko, zehazki, obrako materialak ordaintzeko.

BIGARRENA.- Zerga-bilketa Sailari aipatu dirulaguntza ordaintzeko agindua eman.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau interesdunei jakinarazi eta honen aurkako errekurtsioen berri eman.

LAUGARERNA.- Aurrez, Zerga-bilketa Sailak ikuskatu egin behar du eta gastu hau Hiritartze Ekimenei dagokien partidaren barne sartu.

**ETA
EZ**



9.- Hiritartze Ekimenetarako dirulaguntzak

Delgado Saez jaunak, 2001eko apirilaren 19an, Pasaiako San Pedro kaleko 11. zk.ko jabekideen izenean, dirulaguntza eskatu zuen, San Pedro kaleko 11.zk.an dagoen etxebizitzako egitura birgaitzeko proiektua egiteagatik kobratu dutenaren % 50 ordaintzeko; proiektua Raimundo Mendiburu Abad eta Pilar Calvo Gil arkitektoek sinatu dute.

Udal teknikariak aldeko txostena egin du.

Eraikineko egitura birgaitzeko idatzitako proiektuari dagokion kostua 451.806 pta.koa da.

Horiek horrela eta kontuan hartuta udalak termita arazoak dauzkaten etxeetan egiten diren birgaitze proiektuak diruz laguntzeko irizpidea duela,

Hirigintza teknikariaren proposamenez, Gobernu Batzordeak aho batez ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- Delgado Saez jaunari, San Pedro kaleko 11. zk.ko jabekideen izenean, eskatutako dirulaguntza eman, San Pedro kaleko 11.zk.an dagoen etxebizitzako egitura birgaitzeko proiektua egiteagatik kobratu dutenaren % 50 ordaintzeko, hau da: 451.806 pta.

BIGARRENA.- Zerga-bilketari agindu jabekideen komunitateari aipatutako kopurua ordaintzeko.

HIRUGARRENA.- Interesdunari erabaki hau jakinarazi eta honen aurkako errekurtsoen berri eman.

LAUGARRENA.- Aurrez, Zerga-bilketa Sailak ikuskatu egin behar du eta gastu hau Hiritartze Ekimenei dagokien partidaren barne sartu.

10.- Natur Eskola Programarentzako dirulaguntza

Honi dagokiona ez da dirulaguntza, gastua baizik; eta gastu honen eskumena alkateak duenez, honen, Euskarako Informazio Batzordearen buruak 2001eko irailaren 3an proposatuta, erabaki du “Natur eskolan egonaldiak” programaren barnean, 2001-2002 ikasturteari dagozkion egonaldietarako tokiak gordetzea; egonaldi hauen zenbatekoa 2.781.800 pta.koa da eta ondoko partida hauetatik ordainduko da: 10-226-45-10-99 eta A-1019/01 baimenduna.

11.- “Euskararen Familia Transmisioa” programari dagozkion bekak

Gobernu Batzordeak, Euskara Batzordearen buruak 2001eko abuztuaren 13an proposatuta, aho batez ondokoa

ERABAKI DU

Akordio honekin batera doan eranskinean zehazten diren bekak eman, “Euskararen Familia Transmisioa”ri dagozkionak hain zuzen ere; 1996ko irailaren 11n Euskara Batzordeak jarritako irizpideen arabera (% 85 baino asistentzia handiagoa eta matrikularen % 60 ordaintzea). Zenbatekoa guztira ondokoa da: 189.000 pta.

Hori guztia indarrean dagoen aurrekontuko 1-10-00-481-455-10-01 partidatik ordainduko da.

12.- Euskararen aldeko ekimenetarako dirulaguntzak

Gobernu Batzordeak, Euskara Batzordearen buruak 2001eko irailaren 4an proposatuta, aho batez ondokoa

ERABAKI DU

Euskararen aldeko ekimenetarako dirulaguntza ematea; hau da, euskara ikasten ari diren pasaitarrei, 1992ko ekainaren 1ean Gobernu Batzordeak onartutako baldintzak betetzen dituztenei, laguntza ematea. Laguntza hauen zenbatekoa guztira 527.925 pta.koa da eta honekin batera doan eranskinean zehaztuta daude.

Hori guztia indarrean dagoen aurrekontuko A-1020/01 baimendunaren partidatik ordainduko da.

13.- Obra-baimena: Urgull, 10-1.B

2001eko uztailaren 18an, SILVERIO PAULO AUGUSTO MARQUES jaunak obra egiteko baime-na eskatu zuen bere etxebizitzako balkoian terrazoa aldatu, lehengo baranda kendu eta aluminiozko baranda berria jarri, eta balkoiaren bi aldeetan bi leiho-marko jartzeko, zilar koloreko bi orri korri-garrirekin.

Bi orri korrigarri dauzkaten leiho-markoak jartzeari dagokionez, udal teknikariak aurkako txostena egin du.

Horiek horrela eta kontuan hartuta 1999ko uztailaren 12an alkateak emandako ebazpenaren bidez Gobernu Batzordeari ematen zaizkion eskumenak, honek aho batez ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- SILVERIO PAULO AUGUSTO MARQUES jaunari obra txikia egiteko baimena ukatzea, balkoiaren alboetan bi orri korrigarri dauzkaten leiho-markoak jartzeko, honako arrazoiak direla eta:

1. Pasaiako Arau Subsidiarioen 060.6. artikulua debekatu egiten du fatxadako hegalkinak aldatzea, beraz, ezinezkoa da balkoi irekia erditxi bilakatzea, eskatzaileak nahi duen eran.
2. 84.1. artikulua arabera, eraikinen kanpoaldeak homogeneous eta baterakoia behar du izan, beraz, obraren zati hau egiteko jabeek akordioa hartu beharko lukete eta denek berdinean, laster indarrean jarriko den balkoiak ixteko ordenantza arautzailea betez.

BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunei jakinarazi eta honen aurkako errekurtsoen berri eman.

14.- Azkuene, 42. zk.an horma eta eskailerak indartu eta konpontzeko obraren esleipena

Azkuene, 42. zk.an horma eta eskailerak indartu eta konpontzeko obrari dagokion proiektua KEMEN, E. Y P.,SL enpresak idatzi eta onartuta dago.

Aipatutako obraren kontratazioari dagokion espedientea onartu egin zen, 16.445.174 pta.ko aurrekontuarekin, eta kontratua esleitzeko enkante ireki bidezko prozedura ezarri zen.

Enkantean bi proposamen aurkeztu ziren:

- EDIFICIOS, VIAS Y PUENTES 15.129.560 pta.
- CONSTRUCCIONES DONOSTI, SA... 16.344.497 pta.

**ETA
EZ**



Horiek horrela, udaleko zerbitzu teknikoen txostena aztertu ondoren eta kontratazio-mahaiaren proposamenez, Gobernu Batzordeak aho batez ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- Azkuene, 42. zk.an horma eta eskailerak indartu eta konpontzeko obra EDIFICIOS, VIAS Y PUENTES enpresari esleitu 15.129.560 pta.tan, BEZ barne; obra egiteko hiru hilabeteko epea izango dute.

BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunei jakinarazi eta honen aurkako errekurtsoen berri eman. Hamabost egunen buruan udalera agertu behar dute kontratua agiri administratiboan jasotzeko; kontratistaren erruz hori egin ezean, udalak aukera izango du kontratua suntsitzeko, eta interesdunak kalte eta galerak ordaindu beharko ditu.

HIRUGARRENA.- Lizitatzailerei behin-behineko bermeak itzuli, esleipendunari izan ezik, honek behin betiko bermea osatu behar du aurrekoarekin, 605.182 pta.ko bermea; bermea jartzeko hamabost eguneko epea dauka, erabaki hau jakinarazten denetik kontatzen hasita. Halaber, epe horren barruan esleipendunak ordaindu egin beharko ditu aldizkari ofizialetan lizitazio honi buruz argitaratutako iragarkiak.

LAUGARRENA.- Alkatea gaitu akordio hau betetzeko beharrezkoak diren erabakiak har ditzan.

15.- Hirigintza-arauak hausteagatik irekitako zigor espedientearen ebazpena: Telefonica, SA

2001eko maiatzaren 11ko dekretu bidez, maiatzaren 16an jakinarazitako dekretua, Telefonica, SA enpresari zigor-espedientea ireki genion hirigintza-arauak hausteagatik, Euskadi Etorbidea, 3. zk.an antenna telefonikoa jarri baitzuen nahitaezko baimenik gabe.

Juan Pablo Nieto Mengotti jaunak, Telefonica Moviles España, SA enpresaren izenean, alegazioak aurkeztu zituen epez kanpo.

1.398/1993 Errege Dekretuaren 16. artikulua eta hurrengoak aztertu ditugu; dekretu honen bidez onartu zen Zigortzeko Ahalmena Erabiltzeko Prozeduraren Araudia.



Horiek guztiak kontuan hartuta eta espedientearen instruktoreak egindako ebazpen proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak aho batez ondokoa

ERABAKI DU

GERTAKARIAK

LEHENA.- 2001eko maiatzaren 11n alkateak emandako ebazpen bidez, interesdunari hil horren 16an jakinarazitako ebazpena, Telefonica Moviles enpresari zigor-espedientea ireki zion udalak hirigintza-arauak hausteagatik, nahitaezko baimenik gabe antena bat jarri zuelako.

BIGARRENA.- Gertakari hori arau-hauste arintzat hartu genuen, Hirigintza Diziplinari buruzko Araudiaren 54. artikulua araberak; aldi berean, 55.3. artikuluan aipatzen den larrigarria ere gertatu da, jarduketaren xehetasunen ezagutza teknikoa dela eta; eta honi jarri beharreko zigorra obraren balioaren % 1etik 5era bitartekoa da, 90. artikulua araberak.

Halaber, Aingeru Ezkerra Andueza, Administrazio Orokorreko Teknikaria, zigor-espediente honen instruktore izendatu genuen, eta baita erruduntzat jotzen denari jakinarazi ere, izendapena onartuko ez balu, ezetsi ahal izateko, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 28 eta 29. artikuluen araberak.

HIRUGARRENA.- Espedientepean dagoenari HAMABOST EGUNEKO epea eman genion, ebazpen hau jakinarazten denetik kontatzen hasita, nahi zituen alegazio, dokumentu edo informazioak aurkezteko, eta hala balitz, froga proposatzeko, erabiliko dituen bitartekoak zehaztuz; 1398/1993 Errege Dekretuaren 3.2. artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe. Aipatutako epean ez bada alegaziorik aurkezten, ebazpen hau ebazpen proposamentzat hartzeko aukera du udalak, lehen aipatutako araudiaren 18. eta 19. artikuluetan aurreikusten diren ondorioetarako.

LAUGARRENA.- Juan Pablo Nieto Mengoti jaunak, 2000ko ekainaren 7an, alegazioak aurkeztu zituen epez kanpo; hau Telefonica Moviles España, SA enpresaren ahaldua omen da eta horrela jasota omen dago mandatu-eskriturretan, nahiz eta ez dituzten aurkeztu.

FROGATUTAKO GERTAKARIAK

LEHENA.- Pasaiako Udalak jakin zuen Telefonica Moviles España, SA enpresak berea duen Euskadi Etorbidea, 3. E-an antena bat jarri zuela; horretarako ezinbestekoa da udal baimena lortzea, indarreango araudiaren araberak, eta eurek ez zuten halakorik eskatu.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENA.- Gertaera horiek eta horietan inputatuak izan duen parte hartzea frogatuta daude legezketasun urbanistikoa berrezartzeko irekitako espedientearen, eta erruztatuak ere aitortu egin du, baimenik gabe egindako obrak legezatzeko eskaera egin duenean.

BIGARRENA.- Hirigintza Diziplinari buruzko Araudiaren 58. artikulua arabera, arduraduna Telefonica Moviles España, SA enpresa da, bere organoen edo agenteen ekintzak direla eta.

HIRUGARRENA.- Gertakari hori arau-hauste arintzat hartu genuen, goian aipatutako araudiaren 54. artikulua arabera; aldi berean, 55.3. artikuluan aipatzen den larrigarria ere gertatu da, jarduketaren xehetasunen ezagutza teknikoa dela eta; eta honi jarri beharreko zigorra obraren balioaren % 5koa da, 90. artikulua arabera.

LAUGARRENA.- Udalak badu eskumena espediente hau ireki eta ebazteko, Hirigintza Diziplinari buruzko Araudiaren 65. artikulua arabera, eta alkateari dagokio espediente hau ebatzi eta isunak jartzea, isunen zenbatekoa edozein dela ere, lurraren erregimena eta hirigintza antolamenduari dagozkion presazko neurriak arautzen dituen Eusko Legebiltzarreko 5/1998 Legearen 11.1. artikulua betez; baina alkateak gobernu Batzordeari eman zion eskuordetzan eskumen hori, 1999ko uztailaren 12ko ebazpen bidez.

AKORDIOA

LEHENA.- Telefonica Moviles España, SA enpresari zigorra jarri, Telefonicarena den Euskadi Etorbidea 3 E-an antena bat nahitaezkoa den baimenik gabe jartzeagatik, hau ondoko testuetan jasota dago: apirilaren 9ko 1.341/1976 Errege Dekretuaren 225. artikulua, honen bidez onartu zen Lurraren Erregimena eta Hiri Antolamenduari buruzko Legearen Testu Bategina; ekainaren 23ko 2.187/1978 Errege Dekretuaren 54. artikulua, dekretu honen bidez onartu zen Hirigintza Diziplinari buruzko Araudia; eta azken araudi honen 90. artikulua.

BIGARRENA.- 21.300 pta.ko isuna jarri, hau da, obraren % 5ari dagokiona; obra legeztatzeke aurkeztutako aurrekontuaren arabera, obraren kostua 400.000 pta.koa zen, 1999ko azaroan, beraz, eguneratutako prezioa 426.000 pta.koa da (% 6,5).

HIRUGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinarazi eta honen aurkako errekurtsoen berri eman.

16.- Ondarezko erantzukizunari dagozkion hainbat erreklamazio.

A) Trintxerpeko jaietan, 2001eko uztailaren 16ko goizaldean zezen-suzkoak eragindako kalteen erreklamazioa

ERNESTO GOMEZ LEITE jaunak erreklamazioa aurkeztu du Trintxerpeko jaietan, 2001eko uztailaren 16ko goizaldean zezen-suzkoak jantzita zuen txandalean eragindako kalteengatik; zezen-suzkoak botatzen zituen txinpartak erre egin zion arropa; erreklamazioa aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak aho batez ondokoa

**ETA
EZ**



ERABAKI DU

LEHENA.- Aurkeztutako erreklamazioari ezezkoa ematea ondoko arrazoiengatik:

1. Zezen-suzkoa aurrez iragartzen da eta nahikoa iragarki jartzen da.
2. Zezen-suzkoa agertu zenean aukera izan zuen terrazatik alde egiteko. Hala ere, bertan geratu eta zezen-suzkotik babesteko establezimenduaren barruan sartu zen, beraz, txinpartaren batekin erretzeko arriskua ere onartu zuen, eta hala gertatu zen.

BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinarazi eta honen aurkako errekurtsoen berri eman.

B) Marta Agudok, Haizea Tobar Aguado adingabearen izenean, aurkeztutako erreklamazioa, 2001eko ekainaren 17an Lezo Bide kalean ziklomotorearekin zihoala erori eta izandako kalteengatik

MARTA AGUADO AREVALO andreak erreklamazioa aurkeztu du, HAIZEA TOBAR AGUADO adingabearen izenean, 2001eko ekainaren 17an Lezo Bide kalean, Astilleroetako sarrera parean zeuden hartxintzarrengatik ziklomotorearekin erori zelako. Erreklamazioa aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak aho batez ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- MARTA AGUADO AREVALO andreari, HAIZEA TOBAR AGUADO adingabearen izenean, hamar egunetan bere ohiko zereginak egiteko ezindua egon zenez, ondoko kalteordainak ematea: eguneko 5.000 pta. eta 12.000 pta. urratutako galtzengatik, guztira 62.000 pta.

BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinarazi eta honen aurkako errekurtsoen berri eman.

- Gaizerrendatik kanpo, aho baten ondoko erabakia hartu du Gobernu Batzordeak:

17.- La Herrera Portu Gunean obra txikia egiteko baimena. Talleres Indalbi, SL

01-8-3an, Rivas Gorostiaga jaunak, Talleres Indalbi, SL-ren izenean, obra txikia egiteko baimena eskatu zuen La Herrera gunean (D Gunean) duen tailerlean berrikuntza-lanak egiteko, zehazki: bi tabike bota eta bi solairutan baldosa berritu, guztira 400 m².

Udal teknikariak obra honen aurkako txostena egin du.

Horiek horrela eta kontuan hartuta Euskal Herriko Ingurumena Babesteko 3/1998 Lege Orokorraren 61.1. artikulua eta 1999ko uztailaren 12ko alkatetzaren dekretua, Gobernu Batzordeari eskumenak eskuordetzeko dekretua, honek, aho batez ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- Rivas Gorostiaga jaunari, Talleres Indalbi, SL-ren izenean, obra txikia egiteko baimena ukatzea, La Herrera gunean (D Gunean) duen tailerlean berrikuntza-lanak egiteko, zehazki: bi tabike bota eta bi solairutan baldosa berritu, guztira 400 m², ondoko arrazoia dela eta: lantegi horrek ez du nahitaezkoa den jarduera baimenik, eta Euskal Herriko Ingurumena Babesteko 3/1998 Lege Orokorraren 61.1. artikulua araberak, obra txikia egiteko baimena eman aurretik, jarduera baimena eskatu eta lortu beharra dago, JGOKA araudiaren barne dagoen industria-jarduera baita.

Bestalde, lantegia dagoen gunea une honetan bideratzen ari garen Erabilera Plan baten barnean dago, beraz, bertan behera utzi dugu gune horretako baimenak bideratu eta ematea.

BIGARRENA.- Udal eskubideak likidatu eta behar den moduan jakinarazi.

HIRUGARRENA.- Interesdunari erabaki hau jakinarazi eta honen aurkako errekurtsoen berri eman.

Eta beste aztergairik ezean 19:00etan amaitu da bilera; bertan gertatutakoa jasotzeko akta hau egin dut alkatearen oniritziarekin.